



Garaioaren
Ohitura
Egokien
Kodea

Código de
Buenas
Prácticas para el
Transporte



Jarraitu kode honi

ELUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GARRIAIO ETA
HERRI LAN SAILA

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES
Y OBRAS PÚBLICAS



Jarraitu Kode honi



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES
Y OBRAS PÚBLICAS

SARRERA .5

1 OINARRIZKO PRINTZIPIOAK .8

- 1.1.- ABIAPUNTUKO OSAGAIEN BERRI ZATEAREN **PRINTZIPIOA .8**
- 1.2.- ZERBITZUAREN EFIZIENTZIAREN ETA ABANTAILAK ALDEEN ARTEAN BANATZEAREN **PRINTZIPIOA .9**
- 1.3.- AGIRI **PRINTZIPIOA .9**
- 1.4.- ELKARREKIKOTASUN **PRINTZIPIOA** (PRESTAZIOAK VS. KONTRAPRESTAZIOAK) **.9**
- 1.5.- DISKRIMINAZIOARIK EZEKO **PRINTZIPIOA .9**
- 1.6.- KONTRATATZEKO ASKATASUNAREN **PRINTZIPIOA .9**
- 1.7.- NEGOZIAKETAN PARTE HARTZEN DUTENEN GARDENTASUN **PRINTZIPIOA .10**
- 1.8.- ELKARRERAGINAREN **PRINTZIPIOA .10**
- 1.9.- GARRAIO ZERBITZUAK KALITATEZ BURUTZEKO **PRINTZIPIOA .10**
- 1.10.- SEGURTASUN **PRINTZIPIOA .10**
- 1.11.- INGURUMENAREN BABESAREN **PRINTZIPIOA .11**
- 1.12.- ARBITRAIA **PRINTZIPIOA .11**
- 1.13.- LEGEZKOTASUNAREN **PRINTZIPIOA .11**

2 GARRAIO ARLOKO JARDUKETARAKO ARAUAK .12

- PISUA **.12**
- SALGAIEN ERREPIDEKO GARRAIOAN HASTEA **.12**
- GARRAIO OSAGARRIA **.12**
- ZAMAKETA ERA HUSTUKETA **.13**
- ERREGAIAK **.13**
- TAKOGRAFOAK, GIDATZEKO ETA ATSEDENA HARTZEKO DENBORA ETA ABIADURA MUGAGAILUA **.13**
- SALGAIEN ERREPIDEKO GARRAIOAN INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINA GUTXITZEA **.13**
- KARGATZAILÉ ETA GARRAIOLARIEN ARTEKO HARREMANAK **.14**

3 KONTRATUA .15

- 3.1.- KONTRATU AKORDIOEN FORMALIZAZIOA **.15**
- 3.2.- GARRAIO KONTRATUAN JASO BEHARREKO DATUAK **.15**
 - 3.2.1.- KONTRATU AKORDIOAREN INDARRALDIA **.15**
 - 3.2.2.- GARRAIO ZERBITZUEN ETA KONTRATU AKORDIOEK UKITURIKO BESTE ZERBITZU OSAGARRI BATZUEN PREZIOA **.15**
 - 3.2.3.- UKITUTAKO ZERBITZUEN ORDAINKETA **.16**
 - 3.2.4.- ZERBITZUAK EGITEKO BALDINTZAK **.16**

4 BESTE AKORDIO ETA GOMENDIO BATZUK .18

- 4.1.- KONTRATUA SINATZEN DUTENEN EKONOMIA ETA ENPRESA AHALMENAREN GAINEKO GARDENTASUNA **.18**
- 4.2.- BERNEGOZIAKETA **.18**

5 KODEA EGUNERATZEA .19

6 KODEAREN ZABALPENA .19

7 KODEAREN ARAUKETA .19



Administrazioek eta garraio arloko hainbat eremutako ordezkariak (garraiolarien elkartetakoek, garraiolarien sindikatuetoek, Euskadiko garraiolarien kooperatiben federaziotoek, salgai arriskutsuen ikuskatzaileen elkartetakoek eta trantsitarioen elkartetakoek) izandako elkarriketetan, garraio arloko jarduketetan zein printzipiok gailendu behar duten finkatzen eta garraiorako premiazkoen diren auziak zein diren zehazten saiatu dira, garraioan egoki jarduteko kode bat egin ahal izateko.

Salgaien errepedeko garraioaren kontratazioarako ohitura egokien kodearen helburua salgaien garraioaren erabiltzaileentzat eta garraio-operadoreentzat kontratu bidezko harremanak erraztu eta merkatal trukeetan zintzo jokatzeko erak bultzatzea da.

Kode honi atxikitzeak eguneroko jardunean kodean jasotako printzipio eta arauak betetzeko konpromisoa hartzea ekarriko du, eta atxikita dagoen enpresak, atxikitzen denetik bertatik, bere inudia hobetu egingo du, bai merkatuan diharduten beste agenteen aurrean, bai bere bezeroen aurrean ere, izaten dituen merkatal harremanetan segurtasun juridiko handiagoa lortuko duelarik.

Kode honi askatasun osoz atxikitzen zaizkion garraio-enpresei edo enpresa kargatzaileei kodearen oinarriko baldintzak azaldu eta titularra kodeari atxikita dagoela egiaztatuko duen agiri berezi bat emango die Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak.



OHITURA EGOKIEN KODEA: PARTE HARTZAILEAK ETA ONURADUNAK

PARTE HARTZAILEAK:

- 1.- **Garraiolariak**
- 2.- **Kargatzaileak**
- 3.- **Garraio-operadoreak**
- 4.- **Administrazioa:** garraio-jardunean era batera edo bestera jarduten duten alderdi edo atalak (zirkulazio, ogasun, lan, garraio eta bestelakoetakoak).

Horiexek ditugu salgaien errepideko garraiorako kontratu bat egiten den bakoitzean parte hartzen dutenak.

ONURADUNAK:

- 1.- **Garraiolariak**
- 2.- **Kargatzaileak**
- 3.- **Garraio-operadoreak**

Parte-hartzaile izateaz aparte, horiexek izango lirateke lehenengo onuradunak, merkatuaren gardentasun handiagoagatik, eta eskaintza eta eskariaren arteko joko bidegabeko lehiarik gabe gauzatuko litzatekeelako, bakoitzak negozioaren optimizaziotik lortzen dituen abantaila handiagoak edozein alderditan ballatu ahal izango dituelarik, guztiok onartutako joko-arau batzuen barruan, noski.

- 4.- **Gizartea** bera ere chitura egokien kodearen onuradun izango litzateke, garraioa segurtasun eta kalitate maila ezin hobearekin burutzean ongizate maila eta bizitza kalitate hobek eragingo dituelako. Gainera, garraio arloko langileek ingurumen aldetik ere egoki jarduten badute, egun hainbeste kezkatzen gaituen ekosistemaren mesederako izango da.
- 5.- **Merkatuak** ere izango ditu bere onurak ohitura egokien kodea betez gero, salgaien mugimendua eraginkortasun handiagoz burutzen bada, epe luzera bezeroei zerbitzu hobea eskaintzeko aukera ekarriko baitu.



Garraiorako
Ohitura
Egokien
Kodea

Código de
Buenas
Prácticas para el
Transporte



Salgaien errepideko garraioen kontratazioko ohitura egokien kodea

Garraiorako Ohitura Egokien Kodea Código de Buenas Prácticas para el Transporte Garraiorako Ohitura Egokien Kodea Código de Buenas Prácticas para el Transporte



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES
Y OBRAS PÚBLICAS

Jarraitu kode honi, eta jarri praktikan



1.1 ABIAPUNTUKO OSAGAIEN BERRI IZATEAREN PRINTZIOA

Kode honi atxikitako garraiolariak, salgaien garraioaren erabiltzaileak eta garraio-operadoreak zerbitzuen kontratazioan alde bakoitzak merkataritzako harreman horretako beste aldearen abiapuntuko osagaien berri izan behar duela onartzen dute.

Erabiltzailearen abiapuntuko osagaiak: garraiolariari edo, halakorik izanez gero, garraio-operadoreari honakook jakinarazi beharko dizkio: a) bidaia bakarra bada: garraiatu beharreko pisua; bolumena; salgai mota; halakorik izanez gero, banaketa kopurua; distantzia kilometrotan; eta zamaketa eta hustuketa egiteko lekua, ordua eta era. b) iraupen luzeagorako kontratua bada: salgai mota; zamaketa eta hustuketa lanetarako lekuak eta erak; premiazko zerbitzuak; bidaia kopurua; distantziak; maiztasuna; bidaien plangintza; eta aldeak adosten duten prestazio osagarriekin erlazionaturiko bestelako osagaiak.

Garraio-operadorearen abiapuntuko osagaiak: garraioaren kontratazioan garraio-operadore batek parte hartzen badu, garraiolariari eta zerbitzuaren erabiltzaileari beste aldeak jakinarazi dizkion abiapuntuko osagaien berri emango die, bai eta bere lanari dagokion kostua eta efizientzia zenbatekoak diren.

Garraiolariaren abiapuntuko osagaiak: zerbitzuaren erabiltzaileari edo, halakorik izanez gero, garraio-operadoreari honakook jakinarazi beharko dizkio: a) bidaia bakarra bada: ibilgailuaren ezaugarriak; zenbateko erabilgarritasuna duen; zenbat pisu hartzen duen; bolumena eta garraioaren prezioa. b) iraupen luzeagorako kontratua bada: erabilgari dituen ibilgailu kopurua; ibilgailuen ezaugarriak; eta garraio-zerbitzuak erabiltzailearekin konpartitzeak eragiten duen sinergia.

1.2 ZERBITZUAREN EFIZIENTZIAREN ETA ABANTAILAK ALDEEN ARTEAN BANATZEAREN **PRINTZIPIOA**

Kode honi atxikitako garraiolariak, salgaien garraioaren erabiltzaileak eta garraio-operadoreak beren lana ahalik eta ondoen (kalitate eta segurtasun bermearekin) burutzera behartzen dituzte euren buruak, hitzarturiko zerbitzuekin erlazionaturiko pertsona orok abantailak izan ditzan. Abantailak honakook izango dira:

- Garraiolariak eraginkortasun edo efizientziaz ustiatuko ditu bere tresna eta baliabideak.
- Erabiltzaileak bere kostu-egitura hobetuko du.
- Salgaien hartzaileak kalitate hobeko zerbitzua gozatuko du, arreta, konpromiso, zerbitzua emateko denbora, ardura eta prezioei dagokienean.

Kate logistiko osoaren eraginkortasuna edo efizientzia hobetzen bada, onura nabarmenak lortuko ditugu, bai kontsumitzaile partikularrentzat, bai gizarte osoarentzat.

1.3 AGIRI **PRINTZIPIOA**

Kontratazioko aldean segurtasun juridikoa handitzeko eta hitzarturiko baldintzak betetzen errazteko, garraiolariak, garraio-operadoreak eta garraio-zerbitzuaren erabiltzaileak askatasun osoz hitzarturiko erabakien datuak jasoko dituen agiri edo kontratu idatzi bat egitea komeni da.

1.4 ELKARREKIKOTASUN **PRINTZIPIOA** (PRESTAZIOAK VS. KONTRAPRESTAZIOAK)

Kode honi atxikitako garraiolari, salgaien garraioaren erabiltzaile eta garraio-operadoreen arteko negoziazio eta itunak elkarren arteko trukeetan arazoizko ordainak jasotzeko bideratuko dira.

1.5 DISKRIMINAZIORIK EZEKO **PRINTZIPIOA**

Kode honi atxikitako garraiolariak, salgaien garraioaren erabiltzaileak eta garraio-operadoreak garraio-zerbitzu berdinentzat hasierako baldintza berdinak eskainiko dituzte, horretarako egin beharreko bidaia kopuru eta horien ezaugarriak, ordainketa-baldintzei eta kontratuen indarraldi edo-eta iraupenari begiratuko zaiolarik.

1.6 KONTRATATZEKO ASKATASUNAREN **PRINTZIPIOA**

Kode honi atxikitako garraiolariak, salgaien garraioaren erabiltzaileak eta garraio-operadoreak askatasun osoa izango dute merkataritzako trukeak garraioko zein profesionalekin egin nahi duten aukeratzeko, beti ere, hautaketa hori diskriminaziorik ezaren, kalitatearen eta segurtasunaren printzipioan oinarritzen bada.

1.7 NEGOZIAKETAN PARTE HARTZEN DUTENEN GARDENTASUN PRINTZIOA

Kode honi atxikitako garraiolariak, salgaien garraioaren erabiltzaileak eta garraio-operadoreak, negoziarako abiapuntuko beren osagaiak azaltzeko, agiri bat jarriko dute beste aldearen esku negoziatorako abiapuntuko beren osagaiak azaltzeko; agiri horrek gainera, agirian bertan adieraziko den epe baten barruan, etorkizunean bien artean egiten dituzten negoziaketetarako oinarri gisa baliatuko da.

Agiri hori erreserbatua izango da, eta ez alde batek, ez besteak, ezin izango du erabili harreman horretatik at.

1.8 ELKARRERAGINAREN PRINTZIOA

Kode honi atxikitako garraiolariak, salgaien garraioaren erabiltzaileak eta garraio-operadoreak beren arteko kontratuen oinarri izango den lankidetzaren esparrua askatasun osoz onartuko dute, eta onartuz gero, ezinbestean ez bada behintzat, hitzarturiko baldintzak bete egin beharko dituzte, nahiz eta beren arteko aurreko harremanetan gairatu diren errebindikazioen ondorioz, hitzarturikoa, aldi baterako, nahiz behin betiko, ez betetzea planteatuko duten kanpoko gorabeherak agertu.

1.9 GARRAIO ZERBITZUAK KALITATEZ BURUTZEKO PRINTZIOA

Kode honi atxikitako garraiolariak, salgaien garraioaren erabiltzaileak eta garraio-operadoreak garbi izango dute prezioa ez dela negoziaketa batean kontuan hartu beharreko argudio bakarra, eta bata besteari eskainitako kontraprestazioaren kalitatea ere lehiakortasunerako abantaila gisa hartu beharko da.

Horretarako, kontratuan parte hartzen duen edozein aldeak lasai eskatu ahal izango dio beste aldeari enpresa ondo ustiatzen duela bermatu ahal izateko eskakizunak betetzeko daukan gaitasuna erakusteko, eta, beharrezkotzat joz gero, ezarria duten kalitate sistemak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzen duten kasuan kasuko ziurtagiriak eskatu ahal izango dizkio.

1.10 SEGURTASUN PRINTZIOA

Kode honi atxikitako garraiolariak, salgaien garraioaren erabiltzaileak eta garraio-operadoreak garbi izango dute prezioa ez dela negoziaketa batean kontuan hartu beharreko argudio bakarra, eta bata besteari eskainitako kontraprestazioa segurtasuneko neurri egokiez burutzea lehiakortasunerako abantaila gisa hartu beharko da.

Horretarako, kontratuan parte hartzen duen edozein aldeak, kontratuaren arabera betebeharrekoak garraio-zerbitzu bakoitzak eskatzen duen segurtasun mailarekin burutzeko exijitu ahal izango die besteei, eta behar diren segurtasuneko neurriak betetzen ez badituzte, beste aldeak kontraprestazioa ez betetzeko eskubidea izango du.

1.11 INGURUMENAREN BABESAREN PRINTZIOA

Garraioko profesionalek beren enpresa-jardunak ingurumenean eragindako arazoak konpontzen saiatu behar dute. Eta, beraz, garraio arloan garatzen diren berrikuntzak enpresa-jarduna hobetzeko ez ezik, ingurumenaren mesederako ere baliatzea izango litzateke helburu nagusia arlo honetan.

Garraioan ere ingurumenarekiko gizalegez jokatzek, erregaiak aurrezteko programa berritzaileak sendotzen ditu, enpresen arteko lehiarako eta merkataritzarako abantailak ekartzen ditu, eta azken finean horrek ekologia eta ekonomia mailan errentagarri egiten du.

1.12 ARBITRAIA PRINTZIOA

Kode honi atxikitako garraiolariak, salgaien garraioaren erabiltzaileak eta garraio-operadoreak, kontrakorik adierazi ezean, kodeari atxikitzen diren unetik bertatik, hitzartutako kontratuak betetzekoan sortzen diren auziak eta kode honen edozein alderdiren inguruan piztutakoak Garraio Batzar Integralen esku uzteko konpromisoa hartzen dute, (Lurreko Garraioak Antolatzeko uztailaren 30eko 16/1987 Legean eta hori garatzeko arauetan arautu dira Batzar horiek). Horrela bada, sortutako auzia aztertzeko eskatzen dien informazio guztia eman beharko dien kasuan kasuko Batzarrari, eta hark hartzen dituen erabakiak bete.

1.13 LEGEKOTASUNAREN PRINTZIOA

Kode honi atxikitako garraiolariak, salgaien garraioaren erabiltzaileak eta garraio-operadoreak, indarrean dagoen legeria garatzeko klausula eta baldintzetan oinarritutako erabakiak erdiesteko konpromisoa hartzen dute, eta bereziki bide-segurtasuna hobetzeko jarduteko erak ezartzeko.





Jarraitu printzipioei, eta jardun segurtasunez



GARRAIO ARLOKO JARDUKETARAKO ARAUAK

PISUA

Kode honi atxikitako garraiolariak, salgaien garraioaren erabiltzaileak eta garraio-operadoreak, pisua egokia izateko konpromisoa hartzen dute, garraioa kalitatezkoa izan dadin eta segurtasun baldintza ezin hobeekin burutu dadin; eta horrek bai garraiolariarentzat, bai gizartearentzat hobekuntza nabarmena ekarriko du.

SALGAIEN ERREPIDEKO GARRAIOAN HASTEAK

Administrazioak salgaien errepideko garraioan jarduteko aukerak zorrotzago arautuko ditu, eta profesional berriek garraio-zerbitzu kalitatezkoak eta seguruak eskaini ahal izango dituztela bermatzeko, gutxieneko eskakizun batzuk betetzeko eskatuko du.

GARRAIO OSAGARRIA

Kode honi atxikitako salgaien garraioaren erabiltzaileak eta garraio-operadoreak garraio osagarri pribaturik ez kontratatzeke konpromisoa hartzen dute.

Bestetik, administrazioak agiriaren azterketa exhaustiboa egingo du txartel pribatuak ematekoan, eta behar-beharrezkoak direnean eta behar hori frogatua dagoenean sollik emango ditu.

ZAMAKETA ETA HUSTUKETA

Salgaien errepideko garraio-zerbitzuetan, bidaltzen dena ibilgailuan sartu eta husteko lanak, kontraktorik berariaz adierazi ezean behintzat, kargatzailearen eta kontsignatarioaren kontua izango da, hurrenez hurren, bidaltzen denak, guztira, 50 kg baino gehiago pisatzen badu, edo 1 m³ baino gehiago hartzen badu. Nolanahi ere, garraiolariak bidaltzen den salgaiak nola jarri agindu ahal izango du.

Aldiz, bidali beharrekoak, guztira, 50 kg edo gutxiago pisatzen badu eta ez badu 1 m³ baino gehiago hartzen, garraiolariaren kontua izango da zamaketa eta hustuketa lanak, berariaz bestelakorik adostu ezean, eta zama ibilgailuan atontzeko lana.

ERREGAIK

Kode honi atxikitako garraiolariak errepideko garraioan dihardutenean baimendurik gabeko gasolioak ez erabiltzeko konpromisoa hartzen dute, horiek erabiltzea zigorgarria baita eta arloaren barruan bidegabeko lehia eragiten baitu.

TAKOGRAFOAK, GIDATZEKO ETA ATSEDENA HARTZEKO DENBORA ETA ABIADURA MUGAGAILUA

Kode honi atxikitako garraiolari eta garraioaren erabiltzaileek takografoa, gidatzeko denbora eta atsedena hartzeko benetako denbora, eta abiadura mugagailua errespetatzeko erabakiak erdiesteko konpromisoa hartzen dute, lanabes horiek egoki erabiltzeak bide-segurtasuna areagotzen baitu, eta hori ez ezik, gidarien bizitza-kalitatea ere hobetu egiten baitu.

SALGAIEN ERREPIDEKO GARRAIOAN INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINA GUTXITZEA

Garraioko profesionalek ibilgailuak behar bezala zaintzeaz arduratu beharko dute, batez ere, erregaiaren kontsumoari dagokionean.

Administrazioak, bere aldetik, erregaien kontsumoa jaisteko teknologia berriak ezagutzera eman beharko ditu eta horrelakoak (erregai alternatiboak eta teknologia berriko motorrak) baliatzen dituzten ibilgailu berriak erostea bultzatu.

Gainera, gidatzeko lanari begira ere heziketa osoa eskaini beharko du, besteak beste, errepidean beste gidariekiko gizalegez jokatzeko eta zeharkatu behar dituzten herri-guneetan egoki gidatzeko.

KARGATZAILE ETA GARRAIOLARIEN ARTEKO HARREMANAK

Kode honi atxikitako garraiolari eta kargatzaileek ahalegin berezia egingo dute lan-baldintzak, prezioak etab. jasoko dituzten garraiolarien eta kargatzaileen elkarteen arteko eta kargatzaile eta garraiolari indibidualen arteko akordioak bultzatzeko.

Gainera bereziki hitz ematen dute ez dutela daukaten gailentasuna erabiliko ezein merkatutan konkurrentzia eta lehia galarazteko.





Jarraitu printzipioei, eta segurtasunez gidatu



3.1 KONTRATU AKORDIOEN FORMALIZAZIOA

Kontratu-akordioetan ahalik eta argitasunik handiena lor dadin, eta hura beteko dela bermatu eta ikuskatzeko ardura duten erakundeek akordioaren berri errazago izan dezaten, garraiolari, salgaien garraioaren erabiltzaile eta garraio-operadoreek elkarren artean erdiesten dituzten kontratu-akordioen gaineko datu gutxi batzuk agiri bidez jasoko dituzte, enpresa, kontratu bidez behartzeko ahalmena duten pertsonak sinatutako agiri batean.

3.2 GARRAIO KONTRATUAN JASO BEHARREKO DATUAK

3.2.1. KONTRATU AKORDIOAREN INDARRALDIA.

Kontratu-akordioaren indarraldia hasierako eta amaierako egunek finkatuko dute. Akordioaren indarraldia zehazteko "hurrengo negoziatziora arte", "aldeetako batek salatu arte" edo antzeko formularen bat erabiltzen bada, horretaz aparte, aurrez ohartarazteko epe bat jasoko da akordioan bertan.

3.2.2. GARRAIO ZERBITZUEN ETA KONTRATU AKORDIOEK UKITURIKO BESTE ZERBITZU OSAGARRI BATZUEN PREZIOA:

Garraio-zerbitzuen prezioa zehaztea. Kontratu-akordioan jasotako garraio-zerbitzuen eta, halakorik izanez gero, zerbitzu osagarrien prezioa era garden batean eta berezita hitzartuko da, eta kontuan izango dira zerbitzu horietako bakoitzaren ustiaketako gorabeherak eta ezaugarri bereziak.

Garraioaren prezioa zuzenean salgaiaren fabrikatzaileak ordaintzen badu, agirian prezioa eta, behar izanez gero, ordaintzeko era zehaztuko dira. Garraio-kontratua operadore baten bidez egiten bada, agirian fabrikatzaileak zenbat ordaindu duen eta operadorearen partea zenbatekoa den jasoko da.

3.2.3. UKITUTAKO ZERBITZUEN ORDAINKETA

Hitzarturiko ordainketa-epea. Kontratu-akordioan berariaz besterik hitzartzen ez bada, behintzat, zerbitzuak eskura ordainduko dira, fakturarekin batera salgaia jaso dela adierazten duen eta behar bezala adostua dagoen albarana, garraio-gutuna edo beste edozein egiaztagiri aurkeztuta.

Hitzarturiko ordainketa-era. Egindako zerbitzuak ordaintzeko ze bide (txekea, transferentzia, eskudirua, etab.) erabili behar den berariaz adieraziko da kontratu-akordioan.

3.2.4. ZERBITZUAK EGITEKO BALDINTZAK

Kontrataturiko zerbitzua egiteko epea. Kontrataturiko zerbitzua egiteko epea berariaz adierazi beharko da kontratu-akordioan, eta, halaberrik izan ezean, garraiolariak salgaiak jasotzen dituenean hasi eta agindutako lekuan eta hitzarturiko baldintzetan entregatu arte igarotzen den denbora-tartea joko da zerbitzua egiteko epetzat.

Berrito erabil daitezkeen garraio-elementuen gaineko baldintzak. Garraioaren erabiltzaileak edo, halakorik izanez gero, garraio-operadoreak, kontraturiko zerbitzuak egiteko zamaren euskarri edo bestelako garraio-elementu berrerabilgarriak jartzen baditu, kontratu-akordioan horiek nola zainduko diren eta jarri zituenari edo kontratuan zehazturiko beste erakunderen bati nola itzuliko zaizkion, eta garraiolariak horregatik zein kontraprestaziotarako eskubidea duen ere berariaz hitzartuko da.

Salgaiak entregatzeko lekua eta baldintzak. Kontratu-akordioan berariaz jasoko da salgaia non eta ze baldintzatan entregatu behar dion erabiltzaileak garraiolariari, eraman dezan, eta garraiolariak hartzaileari. Hasieran hitzarturikoaren gainean aldaketarik bada, aldaketak sortutako gastuak eragin dituenaren kontura izango dira.

Salgaien zamaketa eta hustuketa lanetan eta entregatzekoan izandako atzerapenagatik penalizazioa. Kontrataturiko zerbitzua burutzeko lanetan izandako atzerapenagatik zenbateko penalizazioa eta penalizazio hori nola aplikatuko den berariaz jasoko kontratu-akordioan. Atzerapenak izan daitezke batetik, garraioaren erabiltzaileak, garraio-operadoreak edo horien mandatariek hasieran sortutakoak, salgaiak garraiolariari jarritako epean entregatu ez dizkiotelako; bestetik, garraio-zerbitzuan garraiolariak edo garraio-operadoreak ibilgailua zamaketa edo hustuketa-lana egin behar den helmugara garaiz ez eramateagatik; eta azkenik, zerbitzuaren amaieran hartzailea bera garraiatutako salgaiak hartzen berandutzeagatik.

Gorabehera horiek hobeto zehazteko, albaranean, garraio-gutunean edo salgaiak garraiolariari edo-eta helmugan entregatu direla formalizatzeko egindako bestelako agirietan honakook ze egunetan eta ze ordutan gertatu diren jaso beharko da: ibilgailua zama jartzeko noiz eraman zen, salgaiak garraiolariari benetan noiz entregatu zaizkion, zama jarri den lekutik noiz abiatu den ibilgailua, garraio-zerbitzuaren helmugara noiz iritsi den ibilgailua eta hartzaileak salgaiak noiz hartu dituen.

Bidaia jakin bat egiteko garraiolariak denbora gahiegi erabiltzea, baldin eta ezinbestean izan ez bada behintzat.





Kodea betetzeak lehentasuna du



BESTE AKORDIO ETA GOMENDIO BATZUK

4.1 KONTRATUA SINATZEN DUTENEN EKONOMIA ETA ENPRESA AHALMENAREN GAINEKO GARDENTASUNA

Kode honi atxikitako garraiolariak, salgaien garraioaren erabiltzaileak eta garraio-operadoreak, beren finantzen egoerak Merkataritzako Erregistroan indarrean dagoen legeriak ezarritako epean aurkezteko konpromisoa hartzen dute.

Legeak horretara behartzen ez dituen enpresek ere, berekin merkatal harreman egonkorra duen eta kode honi atxikita dagoen edozein enpresak hala eskatzen badie, behar bezala egiaztatu beharko dute beren ekonomia eta enpresa mailako ahalmena.

4.2 BERNEGOZIAKETA

Kode honi atxikitako garraiolariak, salgaien garraioaren erabiltzaileak eta garraio-operadoreak kontratu-akordio batean hitzartutako baldintzak kontratua indarrean dagoen bitartean bernegoziatu ahal izateko arrazoi bakarra onartuko dute, hots, akordioa erdietsi zenean kontuan hartutako egoerak eta abiapuntuak nabarmen aldatu izana, eta batik bat, tarifa ofizialik izanez gero, horietan gorabeherak gertatu izana.

Nolanahi ere, garraiolari, garraioaren erabiltzaile eta garraio-operadoreak hasieran onartutako baldintzak automatikoki berrikusteko klausulak ere onar ditzakete.



5 KODEA EGUNERATZEA

Kode hau bizirik eta eguneratua mantendu ahal izateko, aldian behin berriro aztertuko da edukia, merkataritzaren unean uneko egoerara moldatu ahal izateko, eta, beharrezkoa bada, hasieratik aurreikusi ez arren, garraiolarien, erabiltzaileen eta garraio-operadoreen arteko eguneroko harremanetan arazo puntualak eragin ditzaketan beste gai batzuk arautzeko.



6 KODEAREN ZABALPENA

Kode hau atontzeko lan egin duten administrazioek eta garraioaren inguruko arloetako ordezkariak edo-eta aurrerantzean kodeari atxikitzen zaizkion guztiek, kodearen edukia jendearen artean ahalik eta gehien zabaltzeko egoki iritzi dituzten baliabideak erabiltzeko ardura hartzen dute.

Gainera, aldian behin, kodeari atxiki zaizkion enpresen berri emango dute, eta kodeari atxikitako enpresek soilik erabili ahal izango dute hori adierazteko ezartzen den ikurra.



7 KODEAREN ARAUKETA

Administrazioak (Garraio eta Herri Lan Sailak) beharrezko jotzen dituen kode honen alderdiak kasuan kasuko araudi bidez garatzeko konpromisoa hartzen du.



Garraiorako Ohitura Egokien Kodea

